

Uztapide gogoan.

(Ehungarren urteurrenean)

Jesus M. ETXEZARRETA, "Izazpi"

1.- Atari gisa

Manuel Olaizola Urbieta "Uztapide" bertsolaria, 1909ko maiatzaren 10ean, Uztapide, baserrian jaio zen, eta aurren bere ehungarren urteurrena betetzen da, maiatzaren 10ean.

Bere bizitzako zenbait pasarte eta ibilera gogoangarri aipatuko ditut idazlan honetan. Bere bizitza xume eta emankorrek, zer erakutsia baduelako, gaurko mundu kontsumista eta harroxo honetan... Eta literatura aldetik, bai euskarari, gizalegari eta kulturari dagozkionean harrobi jatorra, jakinduriaz honitua, agertuko zaigulako.

Aita Zabalarri esker, (G.B.) aspaldiko urte hauetan, euskal liburu sailean, gertakizun harrigarri bat berpiztu zitzaigulako. Ahozko literaturan, hainbat idazle xume, inoiz idatzi gabeak, beren oroitzapenak, bizitza, kondairak, argitaratzen hasi zitzaizkigulako. Ondare aberats hori, zenbait liburutan sakabanatua dago. Liburu horiei esker, nik ere zerbait idazteko suertea izango dut.

Uztapideren kasoan, izenburu hauetan, oinarrituko naiz: "*Noiz-bait*" (1964). "*Lehengo egunak gogoan*" (1975) eta "*Sasoia joanda gero*" (1976). Uztapideren ohorez esan nezake, liburu hoiak agortuta daudela aspaldi.

Idazlan honetan, bere bizitzako pasarte xume batzuk aipatuko ditut, eta bertsolari handi bat izan zelako, bere bertso hunkigarri batzuk jarriko ditut kapitulu bakoitzaren amaieran, horrela irakurterrago egingo zaizuelako.

Uztapide bertsolaria, gizon apala eta bertsolari paregabea, izan zelako, Zestuan, maiatzean, omenaldi herrikoi bat egiteko asmoz direlako, nik ere ahalegina egingo dut omenaldi horretan parte hartzeko. Eta idazlan hau ere izan bedi bere "memoria" gordetzeko.

"Ondo dakit gaur, bihotz gaixo bat, astindu behar dedala,
Ai! Uztapide, barka zaidazu, zu aipatzera noala.

Burutan hartu dedan lan hontan, lainkoak argi nazala,
Esan nahiak ager ditzadan, sentitzen dedan bezala".

(Xalbador)

2.- "Uztapide" baserriaren berri

Lehen aipatu dudan bezela "Uztapide", Manuel Olaizola Urbie-ta, bertsolariaren goitizena zen; bere sorlekuaren, bera jaio zen base-riaren izena. Bere liburuan (35.or.; "Lengo egunak gogoan") argazki bat badago, ikusi nahi duenarentzat. Nik zutik ezagutzeko zoria izan nuen, eta bere barnean zerbait hartu nuela ere gogoratzen naiz. Garai hartan (1966an) taberna bezala ere ibiltzen baitzuten. Handik laster bota zuten baserri zaharra eta berri bat, dotorea, (izena Etxe-alai) eraiki, eta taberna edo janleku bezala zabaldu zuten gainera, baina laster utzi zioten jaten-emateari.

Uztapidek berak honela ematen digu, bere baserriaren berri... "Itsas-bista ederra du, udarako toki ona da. Gain batean dago. Atari-jira ederra du; patxara ederrekoa. Kamioa ere badu, eliza ere bai, bere aurrean; atarian eskola emateko tokia ere bai; apaiz-etxea elei-zaren ondoan, (orain, apaiz-etxearen paretean, Uztapideren harlan-duzko irudi eder bat dago). Uztapide, baserriak, mendian izateko, terreno ordekak eta ederrak ditu, soroak eta barrutiak, denak muga baten barnean, eremu handiak: gainera..." "Gu hain ondo bizi etxe hartan eta handik ateratzea asko kostatzen zitzagun, baina etzegon beste erremediorik. Gure ondorengoak gu haina handi egin ziranean, haiek bultzatzen zuten... gerora ere, kanpotik, gustora joaten ginen bisitatzerara eta ongi hartuak izaten ginen..." Bertso baten honela dio:

Atzoko egunez egin bainuen

Uztapidera bixita

Ezin egonik nenguen lehen han

Berrogei urtez bizita.
Gure antzinako babes-lekua
Zegon hezurak hautsita
Nere begiak busti ziraden
Nola zegon ikusita!!!

3.- Bere bizitzaren zertzelada batzuk

Gaurko gazteek harrিতuta geldituko dira garai hartako familia handiak ikusita.

Gerra guziek ekartzen dute arazo berdina; eta pasatu den gizaldian, bi edo hiru gerra nozitu behar izan zituzten gure gurasoek. Gerrak, etxeak, gurasoak, gazteak eta sendi osoak desegiten dituzte eta orduan gurasoek haur asko sortzen dituzte, gizartea pixka bat berdintzeko, ekilibratzeko.

Beste alde batetik, ez zuten gaurko aurrerapenik umeak kontrolatzeko. Beraz, hamarretik zortzi, familia ugariak eta hurrez besteak izaten ziren, gerra ondoren Euskal Herrian. Elizaren eragina ahaztu gabe.

Ikusi Uztapideren familia: zortzi senidekoa zen, lau alaba eta lau seme, bera, Manuel, zortzitik laugarrena. Uztapide baserrian, hogeita bi gizaseme bizi izan ziren. Amonak, hamabi seme-alaba zituen eta Uztapideren amak, zortzi. Beraz, gaurko gazte batentzat, sinestezi-na!!!

Uztapidek, bere amona asko aipatzen du. Laurogeita zazpi urterekin hil zen eta Uztapide sasoikoa zela, bizi zen oraindik. Heme-retzi urterekin ezkondu omen zen. Beliosoro-goiko baserrikoa zen berez eta ezkontzaz etorri zen Uztapidera. Eta hamabi seme-alaba izan.

Uztapidek hogeita lau urte zituela sartu zen argindarra etxean. Amona ez zen fidatzen sorginkeria horiekin eta beste norbaitek piztu behar argia. Aitonak, berriz, gerrara joan behar izan zuen. Etxe-azpiko leihotik salto egin eta karlisten igesi. Aitona liberala zen. Orduan ere anaiak anaien kontra. Berrogeita hamar bat urterekin hil zen aitona. Beraz, hamabi seme-alabekin alargundu zen amona.

Bere aita, behar bezalako gizona zen. Broma behar zenean, broma eta serio behar zenean, serio! Ama, berriz, on hutsa zen. Kontseju onak ematen saiatu ohi zen, baina guk kaso gehiegirik ez genion egiten. Bertso hauek jarri zizkien Uztapidek:

Ezagutu zuenak
Gure aita zana,
Bildurrik gabe egin
Izan zuen lana.
Zortzi seme-alaba
Hazitzeko zama,
Horregatikan hartu
Zuen Beregana!!!

Bere amari.. .

Esan nahi nizuteke
Zein zen gure ama,
Hamaika aldiz hur
Bularra emana,
Ezin asperturikan
Ematen laztana;
Bizi naizen artean
Ahaztuko ez dana,
Une guzitan neri
Oroitzen zaidana!!!

Ezin daiteke esan nolako ezberdintasuna dagoen eskola eta ikasketa kontuan, garai haietatik gaurko egunera. Uztapideren garaian "lau reglak", irakurtzen eta firma botatzen zekiena, ez zen edozein, eta pasa zen gizaldiko kontuak esaten ari naiz. Euskal Herria, kultura eta ikasketa mailan ez dugu izan lehenengo mailakoa, "analfabeto" eskolatu gabeko asko baitzegoen gure artean. Maixu euskaldunik ia ez zen ezagutzen, beti erdaldunak edo kanpotik etorriak. Eskolarik ere ez zegoen toki askotan, eta maixua edo andereñoa, etxez etxe ibili behar haurrei zerbait erakusten, idazten nahiz irakurtzen.

Bizitza orduan nekazaritzari lotua zegoen eta eskolan horretaz ez zuten ezer erakusten, beraz, etxeok, batez ere gurasok, erakusten zituzten lanerako eta bizimodurako, behar ziren gauza garrantzitsuenak...!

Uztapide, Endoiako auzoan jaio zen, eta gaur egun eskola txiki bat dago bertan, eliza eta apaiz etxearen alboan (Uztapide-plazaren aurrean). Bertan behera utzita, han ez baitago umerik. Baina, Uztapide mutikoa zen garaian, hori ere ez zegoen oraindik, berak adierazten digunez:

“Eskolara umetan, beste guziak bezela, gu ere joaten ginen. Hogeit bat baserri ginen ballaran: bost inguru Zestua aldekoak, eta gainerakoak, Debakoak. Maestra Deba aldean egoten zen. Kobratu ere, Debatik egiten zuen, eta Debako etxe horietan, guztietan egoten zen txandan. Hiru hilabetetik hiru hilabetera aldatzen zen. Batean baserri batera, eta bestean bestera joan behar izaten genuen guk eskolara, gela handi edo mandioan ikasi ere. Guk eskolan zer ikasten genuen galdetuko luke zenbaitek, eta ezer asko ez, baina doctrina behintzat bai. Orduan, Aruan zegoen bikarioarekin, punta batetik bestera. Bestela ez zegoen, Pazkoako txartelik. Dotrina ondo ez zekienak, ez zuen izango txartelik, eta oso beharrezkoa zen. Irakurtzen ere ikasi genuen, ez puntu eta ez koma... dena segidan. Guk ez genuen inoren kejarik ematen eta hola lana ugari ateratzen zen. Idazten ere jarduten genuen, ortografia auzoan, baina ni horrekin baliatzen naiz orain ere. Zer nahi dezue, ba? Orain hirurogei urteko kontuak esaten ari naiz eta...” Eskola utzi eta “arazo larri bat” agertzen zaio: ez daki erderaz hitz egiten. Liburu guztiak, doctrina ezik, erderaz ziren arren ez zuen ikasi, eta honen beharra ikusten zuen, inguruko gizartean defenditzeko, batez ere Administrazioarekin hartu-emanak izateko, erakunde publiko guztietan erdaldunak egoten baitziren.

Ikusi ezazue gurasoek hartu zuten erabakia: etxeko bi mutikoek, erderaz ikasteko (12eta 13 urte) Arabako herririka batera “Zurbanora” bidaltzea morroi, urte baterako. Bere baserrietik sekula irten gabeko bi mutikoentzat, hura abentura garratza! Gaur Estatu Batuetara ingelesa ikastera joatea baino gogorragoa izango zen.

Uztapide berak azaltzen digu nolako egoera gogorra izan zen:

“Horretan geundela, gurasoek, eskolan edo nunbait erderaz ere pixka bat gehiago ikasi beharko zela eta. . .hamairu urte nituelarik, Gasteiz ondoko herri batera bidali gintuzten, nire anai bat eta biok, “Zurbanora”, udan lana egitekotan eta neguan eskolara joatekotan. Uda luze samarra zen, baina pasa egin behar. Han zerbait gehiago ikasiko genuelakoan...! Sekula inora atera gabeak ginen gu, Arruara eta Zestuara bestetara ez ginen inoiz joan. Handik ateratzen hasiz gero, begiak argi izaten genituen guk.

Treanean ere sekulan ez ginen sartu eta hura ere nobedadea. Baina sartu ginen, beintzat, aita eta bi anaiok, eta ez zen hitzik entzuten, elkarki begiratu eta ixilik...! Arruan sartu ginen treanean eta Elgoibar aldean edo horrela lehenengo hizketan hasi ginenerako. Eskoriatza alde horretan hasten da trenea, jo alde batera eta jo bestera, eta ez dugula aurrera egingo. Halako batean, Gatzagaraino joan gera, eta han berriz, elurra! Gasteiz aldeko ordeka haietara azaldu ginenean, zuri-zuri dena berdin zegoen. Guk behin ere ez genuen halako ordeka sailik ikusi...!

Elkarrekin hizketan goazela, Gasteizera iritsi ginen. Han bazkaria egin genuen, eta pixka bat Gasteiz ikusi. Eta handik Zurbanora joan ginen. Hurrengo eguna igandea zen eta aitak han pasa zuen egun hura, eta arratsaldeko treanean aldegin zuen. Guk begiak ederki bustita genituen, aitak aldegin zuenean.

Hango alkatearen etxean gelditu ginen. Alkateak Andrea eus-kalduna zuen eta lehenengo bi egunak hantxe pasa genituen. Aitak aldegin zuenean, gu morroi-tokirajoa ginen. Nere anaiak, Alkatearen semearen etxean zuen morroi-tokia, eta nik beste etxe batean. Alkatearen etxean geundela, erderaz ikasten hasi ginen: "Ya lo creol!" eta "¡Qué barbaridad!" eta horrelakoak. Belarriak zahi egoten ziren han...! Erderaz ez genekigun hitzik, hara iritxi ginenean eta argi ibili behar. Baina erderaz ikastera bakarrik ez ginen joan, baizik hango nekazariekin batera morrontzan lana egitera.

Bost hilabete genituen eskolarako izendatuak eta lau gehienaz ere egingo genituen. Baserrira zen eta baserrian lana, zenbat egin, hainbeste izaten da. Eta askotan eguna galdu behar, baina han aitzaki gutxi izaten genuen. Horrelaxe, erderaz pixka bat ikasi genuen eta gu pozik, etxera, Uztapidera. Handik etorri ginenean, etxean ez zen guk haina zekienik eta gu kontentu...!"

Orduan ez zen euskeraz ahaztutzeko beldurrik baserrietan. Oraingo gazteak berriz, erderaz nahiago dute, euskaraz baino. Uztapideko bi mutil koskortuak, hamalau eta hamabost urte zituzten etxeratu zirenean eta etxean falta galanta egiten zuten eta lanean gogor hasi ziren...!

Uztapidek gazte denbora gogorra izan zuen. Nekazaritzan eta artzantzan, etxeko ardiak zaintzen Agiro mendian. Ikazkintzan, basoak bere kontura hartu eta pago eta zuhaitz egurrekin txondorrek egin ikatza lortzeko. Karobian, lana nola egiten zen ere, ederki asko

esplikatzin digu. Bere baserrian "Obrak" konponketa batzuk egin behar zirela eta karea behar.. (oraindik ere han dago Uztapide baserriaren ondoan karobizulo ederra...! Eta garai hartan karea behar edozein konponketa egiteko. Morroi ere egon zen bi baserrian. Lehenengo "Olaberri" baserrian, bere etxetik bistan dago eta "Zubeltzu" baserrian inguruan, han egin zituen hartu-emanak Zubeltzu bertsolariarekin. "Legoa" baserrian ere egon zen morroi. Eta morrontza lanbide gogorra eta garratza gertatzen zen leku askotan, baina Uztapidek ez du ematen inongo kejarik, bizimodu gogorrera ohitua egon hura.

Ataungo Markes basoan ikazkintzan ere jardun zuen, Lizarrustitik gora, eskubitara. Hantxe ezagutu zuen "Zepai" bertsolaria eta bertso ederrak kantatu ere bien artean. "Olaberri" baserrian zegoela Zubeltzu bertsolaria ezagutu zuen eta geroztik bertso gogoangarri bat gelditu da gure memorian, hauxe:

Joxe Antonio, nere laguna
 la gogoratzen zazun,
 Ni Olaberrin morroi nengoen
 Zu bizi zinan Zubeltzun.
 Zuk sorotikan bertsoa bota
 Nik bestetikan erantzun,
 Nik dakizkidan ederren hoiek
 Zuri ikasi nizkizun!!!

Markes basoan Zepai bertsolariarekin, lehenengo aldiz elkartu zen eta geroztik bizitza osoan lagun-minak izan ziren. Han elkarri kantatutako bertso bana jarriko dizuet:

Zepaik:

Beraz zu ere hasia zera
 Bertsuari erantzuten,
 la ba Zepai gizon bezela
 Errespetatzen dezuten;
 Nik goguan detan guzia
 Esplikatu nahi nizuten,
 Baldin benetan hasitzen banaiz
 la damutzen zaizuten...!

Uztapidek:

Baldin benetan hasitzen bada
Zepai honek hala dio,
Baina apenas egingo dezun
Uste dezun baino gehio;
Gizonak ez du ibili behar
Horrenbeste desapio,
Hotsak ederrak joko dituzu
Baina ez naiz oso pio!!!

Ikusten duzue nolako broma erabili zuten. Gerora, Donostian, Antiguu-aldean elkarrekin bizi izan ziren "Cervezas el León" lantokian lana egin zutenean. Azkenik, zahartu zirenean, elkarrekin pasatzen zuten egun bat, bi familiak, horrelaxe bukatu zuten beren elkar maitasuna!!!

Uztapideren gazte denboran ez zegoen gaurko aurrerapenik, eta nahiko erraz sortzen zen bertsoarako afizioa, edo ipui-kontalarierena. Garai hartan ez zegoen ez irratirik, ez telebistarik, ez beste aurrerapenik... "Hitza" zen komunikabide bakarra. Arbasoengandik jasotako altxorra, ondorengoei, ahal zen ongien pasatu, ipuinen bidez edo bertso zaharren bidez (Nork ez ditu entzun azken-juizioko bertsoak, gure gurasoek buruz zekizkiten). Gertaera gogoangarriak haur eta gaztetxoei kontatuaz edo kantatuaz.

Gure gurasoek "memoria" harrigarria zuten eta gaur magnetofoieiz jasotzen dena, orduan buruz gordetzen zen. Batzuek memoria hori izugarria zuten, eta kapaz ziren egun guztian bertsoak edo ipuina kontatzen edo kantatzen egoteko.

Edozein modutara, beste bide bat ere bazen bertsoarako afizioa sortzeko: BERTSO-PAPERAK. Herriz herri eta feriaz feria ibiltzen ziren gizon batzuk, ahots ederrez, bertso-paperak kantatu eta saltzen. Uztapidek ere horrela ikasi zituen lehenengo bertsoak. Begira nola dion:

"Orioko "Begi-ekela" etortzen zen Zestua edo Arruara, Kantu-paperak saltzera, eta guk erosi egiten genizkion. Arruan, meza ondoren izaten zen. Hasten zen kantatzen eta papelekoa dena kantatu arte, ez zuen batere saltzen. Bazekien hark berak ondo kantatzen zuela, ahots ederrez, eta papela dena bukatzean, hasiko zen partitzen, eta aitaren-batean, mordoak saltzen zuen..."
"Hauek dira nik lehenbizi buruz ikasitako bertsoak."

"Mutillak egon arren
 Burlaz ta erronkaz,
 Gaubaz ixilik dabiltz
 Korritutzen ankaz
 Txakur asko ipintzen
 Dituztela zaunkaz,
 Ibilera txar asko
 Andregaien faltaz!!!"

Kortatxo bertsolaria, Juan Mari Salegi, gaztetako laguna zuen, bera baino zahartxoagoa. "Kortatxo" berrian jaioa. Baserri hau, Aittola zahar baserriaren ondoan zegoen eta uste dut lur eta guzi, Aittola-koek erosi zutela.

Uztapidek honela esaten du lagun honengatik... "Kortatxorekin tabernan askotan jarduten genuen bertsotan; batez ere Ziolarren (Uztapideren baseritik gertuan dago). Hantxe izaten zen gure bilera, beti jaiari haraxen biltzen gien eta gu afaldu ondoren zeinek ixildu? Plazan ere bertsotan, Kortatxorekin Lasturren egin nuen lehenbizi. Bildurrez nintzen hasteko eta San Nikolasak ziren hango festak (Irailaren 10-an). Meza nagusira joan ginen eta jende asko bildu zen. Meza bukatu eta hamaiketako labur bat egin ondoren, bertso hauek izan ziren lehenbizi plazan kantatuak.."

Kortatxok:

Ai, Uztapide bihotzekoa,
 Hasi gaitezen hizketan,
 Oso bikote parregarria
 Ez gaude nere ustetan;
 Batere-ez dezu motiborikan
 Hola-egoteko kezketan,
 Bildurrik gabe kantatu zazu
 San Nikolasko festetan!

Uztapidek:

Egunon eta ongi etorri,
 Kortatxo nere laguna,
 Estimatzeko modukoa da
 Zuk dezun mingain leguna:
 Bildurrik gabe kantatzea da
 Guk egin behar deguna,

Nik nahi baino lehen ez da pasako
Lasturko festa eguna...!!!

(Lasturko tabernako sarreran daude bi bertso hauek, Uztapide-
ren imajinarekin batera).

Uztapide eta Zepai: Zepai ere Errezilgo sortetxearen izena zen,
baina denok bertsolari bezela "Zepai" izenarekin ezagutzen genuen:
Bere izen-abizenak hauek ziran: Akilino Izagirre. Uztapide baino bi
urte zaharragoa zen, baina gazte denboran eta zahartzaroan harre-
man berezia izan zuten Lizarrustiko basoan ezagutu zirenetik.

Uztapide soldaduskatik etorri zenean, biak lantoki berean egin
zuten lan (esan dugun bezela) "Cervezas el León" Donostiako Anti-
guoko fabrika batean (orain ez dago). Apopilo etxe berean egon ziren
urte horietan, beraz, anaiak bezala ziren biak. Urtero, egun bat elka-
rrekin, sendi osoarekin, pasatzen zuten hortik zehar. Zepaik, harrigarri
zuen zen, bertso-doinu bakarra erabiltzen zuela) eta beste denak
doinu horretan erantzuten zioten (sinestezina, baina neronek ikusia
Azpeitiko jai-aldi batean). Ataungo Kasetara jaitsi zirenean, merienda-
tu eta honela kantatu zion:

Nere gustora hasiko naiz ni
Ez noa derriorrian,
Saio koskor bat egingo degu
Ta patxara ederrian;
Nere barrena barruntatzen det
Sekulako indarrian,
Dozena-erdi bat kanta ditzagun
Lehengo oitura zaharrian.

Uztapide eta Zubeltzu

Blek baserrien izenak zeramatzaten ohitura zen bezala. Zu-
beltzu baserria, "Uztapide" gertu zegoen eta Olaberri baserritik ber-
tan. Zubeltzu bertsolariaren izen-abizenak hauek ziren: Jose Antonio
Sorasu Unanue. Zubeltzu zahar baserrian jaio zen eta Uztapide baino
14 urte zaharragoa zen. Uztapide, Olaberri baserrira morroi joan
zenean, elkar ezagutu eta saio ederrak egin zituzten.

Zubeltzuri, 1972an egin zitzaion Deban omenaldia (neronek
antolatua) eta Uztapide eta Basarrik besotik helduta eraman zuten
eserlekura, ibiltzeko gauza ez zelako. 78 urte zituen eta Debako
Lasao-handi baserrian jaso zuen bere izebak mutil-zahar zegoelako.

Uztapidek asko errespetatzen zuen Zubeltzu zaharra eta bien arteko harremanak oso estuak izan ziren, bertso zoragarri honetan adierazten duen bezela:

Zu baino lagun maiteagorik
 Ez det izanda munduan,
 Noizbait biliar ta juntatu gera
 Biok elkarren onduan,
 Inoiz hainbeste memori eder
 Euki ez arren buruan,
 Dozen erdi bat botako-izkizut
 Goratzen diren moduan!

Euskal Herri guztian, gerra ondoren, herriz herri, beti elkarrekin bertsotan ikusten ziren. Bikote zoragarria egiten zuten, Kixote eta Santxo Pantza bezala, batek idealismoaren papera betetzen zuen eta Uztapidek errealismoarena, beti Basarriri nondik ziria sartuko ibiltzen baizen.

Beti Basarri hasten zen kantuan eta Uztapide zain egon ohi zen non errista egingo besteak, erantzun aparta emateko, jendearen *irri* gozoa beregatuz...! Basarrik harro fama izan zuen, nahiz eta hala ez izan, eta Uztapidek berriz otzan eta humilarena.

Basarrik:

Horaintxe aspertu naiz
 Ni horrelako gaiz,
 Eta ixildutzia
 Hobe degu garaiz.
 Lehen ere holakoak
 Nik entzun ditut maiz,
 Basarri deitu baino
 Klean bizi naiz!!

5.- Bertsolari-txapelketak

Kondaira labur bat jarriko dut hemen, bestela oso luze joango litzateke.

Uztapide ezagutzera eman zen 1935-36ko urtean, kanporaketak Azpeitian eta Tolosan jokatu ziren, eta Donostiako txapelketa

nagusirako aukeratu zuten. Txapelketa hau 1936ko Urtarrilaren 19an (San Sebastian bezperan) izan zen. Uztapide bigarren sailkatu zen, Txirrita handiaren ondoren. Askok zioten lehenengo behar zuela, baina Txirrita azken urteetan zegoela eta merezia zuela txapeldun handi bat bezala historiara pasatzea.

Gerra etorri zen eta txapelketa nagusiak 1960 arte ez ziren ospatu. Nahiz eta Ifarraldean Hemandorenak txapelketa batzuk antolatu. 1960ko txapelketa Basarrik irabazi zuen eta Uztapide bigarren sailkatu zen.

Baina gero hiru txapelketa nagusi irabazi zituen jarraian: 1962an, 1965ean, eta 1967an. Ondoren txapelketa hauek bertan behera gelditu ziren epai-mahaia zela eta ez zela. Uztapidek txapelketa horietan kantatutako bi bertso jarriko dizkizuet:

"AMA"

Hauxen da gai polita
Orain neregana,
Alboko lagunendik
Etorri zaidana;
Bertsoak bota behar
Hemen hiru bana,
Hontan esan nahi nuke
Nik naitasun dana...
Beste ze-esanik ezta
Esanikan: AMA!!!

"BIZITZARI"

Esan dizutet pobre sortuta
pobre izana naizela,
ta sinisten det urte hobeak
geroztik ez datozela;
baina nik beti bizi nahi nuke
jaun maitiak, bai honela,
pobrezan Kristo Nazaret bertan
bizi izan zan bezela!!!

6.- Uztapide herriz-herri bertsotan

Bi txapeldun, 1935eko txapelketan Basarri handia gertatu zen txapeldun, 21 urterekin. 1936ko txapelketan, Basarri gai-jartzaile izan zen eta Uztapide: txapeldun-orde. Baina txapelduna Txirrita oso zahartuta zegoen herriz herri, gelditu gabe ibiltzeko eta omenaldia egin zioten Erreterian, txapela irabazi eta laster; hirurogeita hamasei urte zituen ordurako... Umorez agertu zuen bezala:

Hirurogei ta hamasei urte
Garaia det humiltzeko,
Gauza handiren beharrik ez det
Goitik behera amiltzeko;
Bi bastoi hauek aski nitun nik
Munduz-mundu ibiltzeko,
Hirugarren hau andregaiari
Arkakusuak hiltzeko!!!

Beraz Basarrik eta Uztapidek, bidea libre zuten, bi txapeldun bezala, Herriz herri, bertsotan ibiltzeko. Euskal Herrian, herri gutxi izango dira hauek biak kantatu ez dutenak. Harrigarriena da nola ibili behar zuten ikustea. Orduan ez zegoen gaurko garraio edo transporterik. Askotan, egun bat joateko eta beste bat etortzeko. Eguerdian eta arratsaldean bi saio oficial egiten zituzten eta gainera bazkalondoan eta afalondoan saio luzeak, jendearen eskabideen arabera...

Denak ez ziren oso kontentu. Zubeltzu bertsolaria bixitatu nue-nean hemen Deban, Lasao-handi baserrian, honela esan zidan... "Uztapidek, txapeldun-orde Donostian sailkatu zenetik, bere lagun asko baztertu zituela, Basarrirekin joateagatik. Zepai ere haserretu zela eta honela ziola:

Zu Uztapide nerekin pozik
Ibiltzen zinen antzinan,
Gero ni utzi bazterrian ta
Basarringana joan zinan
Baina sinistu, garai batean
Ni baino gehio etzinan!!!

7.- Uztapideren ixilaldia eta idazle urteak

Uztapidek, 1972an ondoeza eman zion bitartean, Euskal Herrian bertso kantatzen jarraitu zuen, bere belaunaldiko bertsolari guztiekin, batzuekin asko, eta beste batzuekin gutxiago, baina denak ohoretzat daukate, Uztapiderekin kantatu izana. Horrelakoxe jaialdi batean, Donostiako "Anoeta" pilotalekuan, bat-batean izugarritzko ondoeza eman ziola, 1972ko Apirilaren 30ean, geroztik ez zuen jaialditan kantatzerik izan, pena izugarria, beraz...!

Uztapide, Manuel Olaizola Urbieta, Endoiako ballaran jaio zen, baina 41 urte zituela bere anai gaztea Nazario hartu eta Oihartzunera joan zen, "Laguntzarrene" baserrian bizitzera. Baserri hau, bien artean erosi eta han bizitzen jarri ziren. Handik pare bat urtera, han ezagutu zuen neska gazte batekin ezkondu zen. Maiatzaren hamarrean 43 urterekin. Seme bat ere izan zuten eta Manuel izena jarri zioten.

Uztapiden ixilaldia, 63 urte zituela hasi zen. Baina egin zioten hainbat omenaldietara bertso idatzi edo grabatuak bidaltzen zituen, han kantatzeko. Aita Zabala eta Joakin Berasategiri esker, derrigorrean idazle bihurtu zuten, kontalari aparta, idatziz jarri zituen bere bizitzako gorabehera gehienak, guztion mesedegarri...!

Ikusi ezazue bere ondoeza, nola adierazten duen M. Manterolak:

Zer hutsunea gure plazetan
Aurtengo uda guztian,
Gure Manuel gaitz gaizto batek
Hartu baizuen azpian;
Nahigabe hori nere aurrean
Gertatu zan Donostian,
Apirilaren azken egunez
Hirurogei ta hamabian!!!

8.- Uztapide, literatura ikuspuntutik

Idazle xume bat, literatura ikuspuntutik, ikertzea gauza zaila da. Neri idazle ezagun batek honela esaten zidan: intelektual usteko

batzuen ergelkeria zela, ahozko literaturak ez zuela ikertzeko esparru handirik.

Nolanahi ere, Uztapideren alderdi nabarienak agertzen saiatuko naiz. Bertsolari bakoitzak ditu bere teknika bereziak. Baina denak lege zabaletara makurtu beharra daukate: lege hoiak hauek dira. Lege erretorikoak

- a) Zer esan behar duzun asmatu
- b) Esan behar duzuna, ordenan jarri.
- d) Esatekoa hitzez eta irudiz edertu.
- e) Kantatu ahots ederrez eta gorputz espresaeraz
- f) Memoriaz baliatu.

Lege poetikoak:

- a) Atzekoz aurrera bertsoa egituratu.
- b) Lehenengo azken esaera moldatu.
- d) Azken-esaeraren kurpilean, besteak lotu.
- e) Lehen puntuak, azkenaren osagarri eta indargarri izan behar dute.

Hauek izan litezke lege edo teknika orokorrak, baina ikus dezagun Uztapiderengan nola ematen diren. Azken sentimentuzkoa edo dramatikoak:

Hauxen da gai polita
Orain neregana,
Alboko lagunendik
Etorri zaidana,
Hemen kantatu behar
Hiru bertso bana,
Montan esan nahi nuke
Nik naitasun dana,
Beste ze-esanik ezta...
Esanikan: AMA.

Bertso eder hau entzutean, txalo zaparrada izugarria jaso zuen, batez ere, bere ahots zoragarri harekin "AMA" esan zuenean (okasio-rik baduzue, entzun), halako sentimendua eta dramatismoa ematen dio, gogoangarria benetan!!!

Baino ikusten da, lehenengo sei lerroak lotura juxtua dutela, beste lau lerroekin. Gure garaian deitzen zitzaien "betelana" eta Uztapideren garaiko bertsolari askok erabiltzen zuten. Gaur ez da entzun ere egiten hitz hori, "betelana". Azken esaeraren gurpilean lotzen ez zutelako, bertsoaren hasiera. (lege orokorrek dioten bezala). Baina lehen, asko egiten zen. Gaur bertso osoagoak moldatzen saiatzen dira, eta "betelana" hitz hori, ez da entzuten.

Puntua jarrita:

*Eibarren egiten da
Eskopeta fina...*

Neronek ere badut
Hementxe egina,
Eta denok eukiko
Dezute jakina,
Oker tirata ere
Botatzen dakina!!!

Amaiera, satiriko-ironikoa, baina, zoragarria! Baina, hemen ere ikusten da, lehen esan duguna... bertsoaren amaiera dela garrantziko eta izugarri ederra, ironiaz betea. Aurrekoak ez badu loturarik, ez du inporta. Beraz, lehengo bertsolariek, garrantzi izugarria, amaierari ematen zioten, eta beste ostengoa, nola-hala osatu. Horri, "betelana" deitzen zitzaien lehen. Lehengo bertsolarien artean, bertso satiriko-ironikoak, ziren garrantzizkoak, eta zenbat eta ziri ederragoa eta sakonagoa sartu, orduan eta txalo gehiago. "Sartu zioke ziri ederra!!! Erantzunik gabe utzi dik"

Ondoren, Uztapidez, Jan Mari Lekuonak zioena jarriko dut:

"Manuel Olaizola "Uztapide", se autodefine fundamentalmente un bertsolari improvisador. As lo afirma él mismo: "Yo no soy un versolari que escribe sus versos, sino un improvisador"... Uztapide, posee una buena técnica: serán pocos los que en el "zortziko y en el "hamarreko" hayan conseguido una elaboración y un estilo más bellos y un equilibrio más proporcionado entre fondo y forma. Su palabra tenía unas connotaciones precisas para el público, y el pueblo entendía su manera de pensar, su buen hacer y su manera de sonreír, cargada de ironía, pero sin amargura."

Nik esango nuke, Uztapide bi alderdik bereizten zutela: bere ahots zoragarriak eta planta umil eta errespetukoak!

Bere garaian ez zegoen goragailurik edo altabozik, eta bere ahotsak, txunditu egiten zuen jendea..! Nik ere hola ezagutu nuen, Udaletxeko balkoitik, Basarriekin bertsotan, baina goragailurik gabe, hainbeste jenderen aurrean, denak isilik entzuten.. askotan, buruz jasoaz.

Basarrik, 1960an txapela irabazi zuenean, ikusi, zer umiltasunez, agurtzen duen.

Kantatu nahi det nike bertso bat

Oso era tajuzkuan,

Nola lagun zahar txit maitatua

Nik banuen Gipuzkuan:

Lehen zan tokira berriro ere

Txapela zaikigu Juan;

Iruditzen zat ongi zegola

Lehenago zegon eskuan,

Merezi dezu ta gorde zazu

Basarri, urte askuan!!!

Bertso honetan ere, Uztapidek, agertzen du bere umiltasuna eta gizatasuna...! 1962an, Uztapidek, jaso zuen txapela eta alde-rantziz, Basarri, nahikoa haserre, ez zen gehiago txapelketetan agertu.

Herri literatura, ahozko literaturaz eta bi ikuspegi:

- 1) Aita Zabala: Dudarik gabe Aita Zabalak, garrantzi handia eman zion ahozko literaturari eta ausardiaz esaten du ez daudela bi literatura mota: literatura landua-kultoa eta ahozko literatura, baizik literatura bakarra, begira nola dion erderaz (Auspoaren-auspoa 34 orr.) "Cuando se iniciaron las tareas de recopilar de boca del pueblo materiales literarios, se creo para estos, el término -folklore- o saber del pueblo, o literatura oral o popular. Pero se trataba de una etiqueta un tanto injusta, porque llevaba dentro un juicio de valor que marcaba diferencias y categorías. Lo uno era lo culto, lo docto, lo letrado, lo noble; lo otro, lo inculto, lo iletrado, lo plebeyo. Había un plano superior y otro inferior. y en esta trampa hemos caído casi todos. Hasta que oí de labios de

un amigo que no había dos literaturas, una culta y otra popular, sino sólo literatura..."

- 2) Juan Mari Lecuona: Ez du ikuspegi berdina, berak uste du bi literatura mota daudela, baina oso zaila dela bien tarteko muga jartzea, beraz, ez zegoen ados Zabalarekin. Xalbadorren kasua zegoen oso garbi: alde batetik, bertsolari bezala juzgatzen dugu eta beste alde batetik, literatura kultua egiten du, ikusi besterik ez dago bertso batzuetan. Olerkari askok nahiko lukete bere maila ematea. Begira bestela:

Geroztik nihaur ere nabila
Guzia beltzez jantzirik,
Ez dut pentsatzen nigar eiteko
Ene begiak hesterik.
Ez pentsa gero, andre gaixoa
Baden munduan besterik,
Zure arropa berriz soinean
Har dezaken emazterik!!!

9.- Lagunen aitortpenak eta amaiera

Lagunen aitortpenak eta amaiera: Uztapide, Euskal Herrian maitatua eta errespetatua izan da. Bertsolari eta bertsozaleen ahotik sekula ez dut entzun kritika edo hitz txarrik beretzat. Dudarik gabe izango zituen bere akatsak, baina alderdi onak askoz gehiago. Maiatzean, Zestuan, ehungarren urtebetetzea ospatzera doaz, eta nik ere nire apurra eskaini nahi izan diot. Ondo esanak gogoan hartu, eta gaizki esanak barkatu.

Lehen ere omenaldi asko egin zitzaion Uztapideri eta bat Zestuan, eta hango omenalditik bertso bat aukeratu dut, Jose Agirre "Oranda"rena, ikus dezazuen zein ederki esaten duen, Uztapide, zeinek maitatzen zuen:

Lagunak dio, Zestua, baina
Beste noranahi joanik,
Hemen bezela maitatzen dala
Garbi esan nahi nuke nik,
Bertsolaritza eta euskera
Gogozkoak dituenik,

Ez da izango gure-Uztapide
Estimatzen ez duenik...!!!

Agur eta ohore Aita Zabalari, Uztapideren aita-ponteko eta laguntzaile sutsuari, bera izan ez balitz ez genuen Uztapide asko "ezagutuko eta Uztapideren omenaldian egon nahi zuen...! Heriotz egunean, bertso hauek idatzi nizkion, (2009ko Urtarrilak 2an)

-1-

Aita Zabala hilda,
Joan dela zerura,
Heriotzak golpean
Eraman du hura.
Gu biziko bagina
Beraren modura,
Langileen saria
Datorkit burura,
Joango ginakela
Bere ingurura!

-2-

Euskera ta erdera
Aipatu ditzagun,
Bietan egin baizen
Hura hain ezagun,
Haren lan erraldoia
Aitortu dezagun,
Eta izan ginenok
Zabalaren lagun,
Ez dakigu oraindik
Ze zorra daukagun!!!

-3-

Lanean hasi zinen
Guk ez dakigu noiz..?
Bertso paperak biltzen
Gaztetan edo goiz,
Hamaika lan egina
Sutsu eta sasoiz,
Sarri esaten degu,
Gainera arrazoiz,
Herriak ez dizula
Eskertuko inoiz!!!

-4-

Zure "Auspoa" degu
Altxorrik onena,
Horko idazle xume
Denontzat omena,
lortu zuanarentzat
Aipamen gorena,
Eta Aita galtzeak
Ematen du pena,
Baina ez da galduko
Zure oroimena!!!